

IRAKURMENA LANDU ETA EBALUATU: HAINBAT OHAR



Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan hobekuntza plana ezartzen ari da; plan horren ildotik lan bat proposatu da hizkuntza gaitasuna hobetzeko: **narrazio eta azalpen testuen irakurmena** ebaluatzea (ipuinak, testu liburuak, berriak, erreportajeak edo beste material batzuk...). CD honen hasieran bi dokumentu agertzen dira, eta bertan lehen hizkuntzarekin zerikusia duten ondoko irakurketa-prozesuak zehazten dira:

- Ulermen globala: ideia nagusiak.
- Ulermen zehatza: informazioa aurkitzea.
- Testua interpretatzea eta berregitea.
- Testuaren formaren eta edukiaren gainean gogoeta egitea *

* Atlante Proiektua, Hobekuntza Plana, 2. zkia.

Prozesu horiek beraiek egokitu eta aplikatu daitezke curriculumaren hizkuntza guztietan egiten diren irakurraldietan.

Gomendio praktikoak

- *Ikasleek irakurmena hobetzeko, beharrezkoena eta eraginkorra irakurtzen denbora luzeagoa ematea da. Gehiago irakurri behar dute, eta aldi berean, lagundu behar zaie irakurritakoaren gainean hausnarketa egiten (edukiak, esateko modua, testu mota, erabilitako hizkera, eta abar). Neurri horiek aplikatzen badira, emaitzak arras hobeak izango dira.*
- *Ikasleek irakurketa lanak egin behar dituzte hizkuntza eta irakasgai guztietan, baita maiz egin ere.*
- Praktikotasunari begira, bi multzotan sailkatuko ditugu maila honetan interesatzen zaizkigun testuak:
 - Ø *Ikasteko irakurri* (azalpen testuak lantzea, batik bat)
 - Ø *Plazerragatik irakurri* (fikzio liburuak)
- Hori guztia modu interaktiboan. Irakurketa aktiboa eta hausnartua egiteak esan nahi du, batik bat, hainbat galderari erantzunak bilatzen zaizkiola, eta aldi berean, irakurleak bere erantzunekin zerbait berria ekarri behar diola testuari. Ez da jarduera pasiboa.
- Hasierako dokumentu teorikoetan jasota ageri den bezala, irakurmena bermatzeko, irakurketa prozesuek eskatzen dute **estrategia** komunak erabiltzea curriculum hizkuntza guztietan, eta hizkuntza horiek, bidenabar, **lan eta jarduera** jakin batzuk erabiliz garatzen dira.



- Ikasleek euren lehen hizkuntza hobeto ikasia dutenez, sakonago egin dezakete gogoeta, testuen, lanen eta estrategien gainean; izan ere, askotan, Lehen Hezkuntzan bakarrik eman ahal izango dira irakurketari aplikaturiko hainbat azalpen, ondokoak bezalako gaiak azaltzeko: estrategiak, testuen gaineko hausnarketa edo irakurketa prozesuetan aplikatu daitezkeen ereduak.

- Beharrezkoa da, halaber, ebaluazioak modu erregularrean egitea, ikasleek zer ikasi duten ikusteko, ahaztu gabe hobekuntzek denbora eskatzen dutela.

Irakurmena baloratzeko erabil daitezkeen galderak eta jarduerak:

1. Testuan **datu zehatzak** bilatzea

- Zerbaitek edo norbaitek nola duen izena...
- Zein klase/talde/tipotakoa den.
- Non gertatzen den zerbait, zein tokitan dagoen zerbait edo norbait...
- Noiz gertatzen den gauzaren bat.
- Nola... egiten den zerbait, nola sentitzen den pertsonaiaren bat...
- Zenbat denbora, zerbaiten kantitatea...
- Nork esaten duen, egiten duen...zerbait.
- Zergatik, nori, zertarako...
- Nork kontaktzen duen istorioa.
- Nork/nortzuk diren parte hartzen duten protagonistak, pertsonaiak.
- Nork/nortzuek kontaktzen duten istorioa.

2. Hitz jakin baten esanahia testuinguru ezberdinetan **kontrastatzea** (polisemia ariketak dira, eta balio dute hitz berberaren adierak ikasteko).

3. Semantikoki edo sintaktikoki **erlazionatuta dauden hitzak** aurkitzea:

- prozesu bateko zatiak.
- zerbaiten zatiak.
- pertsonaien, eragileen edo parte-hartzaileen arteko erlazioak.
- hitz familiak.
- sinonimoak, antonimoak.
- formula negatiboak.
- antzeko esanahia duten esaldiak, baina bestela formulatuta daudenak.

4. Testuaren **gaia** edo nondik norakoa esatea.

5. **Gertaerak antolatzea**, testuan duten segidari jarraituz.

6. **Irudiek ematen duten informazioaz** galdetzea.

7. **Testuaren informazioa** aplikatzea irakurlearen bizitzan eta bizipenetan.
8. **Ondorioak** ateratzea testuaren datuetatik, irakurlearen esperientziaz eta irakurleak munduaz duen ikuskeratik.
9. Ipuin baterako **irakaspen** egokia sortzea.
10. Testu baten **zatiak bereiztea**.
11. Testuko **enuntziatu bat egia edo gezurra** den esatea, testuan esaten denari jarraikiz.
12. **Iritzia eta informazioa** bereiztea.
13. **Zein testu mota** den esatea:
- azalpen, informazio testua
 - deskripzio, narrazio testua
 - testu errealista; eta fikzio eta fantasia testua
 - testu literarioa, poetikoa
14. **Testuaren xedea:**
- informazioa ematea, irakastea
 - denbora pasatzea, dibertitzea (fikzioa)
 - barre eragitea (humorea)
 - edertasuna sortzea (literarioa, poetikoa)
15. **Autorea inplikatzeko den esatea**, hots, ikuspunturen baten alde egiten ote duen edo objektiboa den.
16. **Akatsak edo kontraesanak detektatzea** esaldiren batean, irakurgai osoaren baitan; eta esaldi hori **berriz idaztea** modu zuzenean.
17. Testuak dioena eta ikasleak dakiena **kontrastatzea**; edo testuak bi toki ezberdinetan dioena **kontrastatzea**.
18. Zerbaiten gaineko **hainbat arrazoi ematea**.
19. Informazio, arrazoibide, azalpen jakin bat, **berriz idaztea edo berriz formulatzea** bere hitzekin.